



## OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
<b>Kide anitzeko organoa:</b>	Osoko Bilkura
<b>Deialdi-mota:</b>	Ezohikoa
<b>Data:</b>	2023ko uztailaren 31
<b>Iraupena:</b>	19:15etik 19:52ra
<b>Lekua:</b>	Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
<b>Udalburutza:</b>	Unai Gutierrez Urkiza
<b>Idazkaritza:</b>	Oiartzta Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE	EZ
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
MARIA INMACULADA ELORZA BERGARA	BAI
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	BAI
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA	BAI
ANDER BARANDICA SANTOS	BAI
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE	BAI
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI



Murgian, 2023ko uztailaren 31n, 19:15ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Bilkura egin da Udaletxeko Administrazio Bulegoetan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiertza Urquijo Alaña andreak Udaltzatuko idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendako aztergaiak eztabaidatu dira.

**1.- IDAZKARITZAREN EBAZPEN PROPOSAMENAREN TXOSTENA, EGINTZA DEUSEZA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURARI BURUZKOA (ESPEDIENTE-ZENBAKIA: 2023/1/S02.01.06.03).**

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta adierazi du gobernu-taldeak bere egiten duela idazkaritzak 2023ko uztailaren 13ko ebazpen-proposamenaren txostenaren bidez egindako proposamena, eta bozketarako aurkeztu den proposamenak prozedura honen xede diren egintzen deuseztasun-deklaraziorik ez egitea hartu duela bere gain, uste baitu trafiko juridikoari eutsi behar diotela, egintza horiek mugiaraztea eragozten duten mugak baitaude (39/2015 Legearen 110. artikulua), 1222 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako alegazioa ezetsi behar dela, txosten hau osoko bilkurari helarazi behar zaiola, bere egin dezan, kontsulta-organoari nahitaezko irizpena eskatu behar zaiola eta prozedura ebazteko legezko gehieneko epea eten behar dela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzen denetik irizpen hori jasotzen den arte.

Gainerako udal-ordezkariei hitza eman ondoren, MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak EAJ-PNV ZUIA udal-taldearen jarrera azaldu du honako adieraziz: *"Aurkeztu den txostenaren zorrotasuna baloratzen hasi gabe, eta are gutxiago zalantzan jarri gabe, uste dugu juridikoki oso gai konplexua dela eta arauaren interpretazioa oso salbuespenezkoa dela. Uste dugu garrantzitsua dela erabakiak segurtasun juridiko osoz hartzea, ez bakarrik zinegotzietatik dagokienez, baizik eta, batez ere, Udalaren onerako, egoera okerragotu dezaketen ondorioak edo*



*zehapenak saihesteko. Horregatik, eta zuhurtzia handiagoz jokatzearen aldekoak garenez, ez dugu ebazpen-proposamenaren txostenaren alde bozkatuko. Baina ez dugunez blokeatu nahi, ez eta gure jarrera politikoki erabili nahi ere, ez dugu aurkako botorik emango. Beraz, abstenitu egingo gara. Laburbilduz, udalerrak behar dituen proiektuak aurrera ateratzea nahi dugu, baina ez dakigu hori lortzeko modurik onena gaur proposatzen den bideari jarraitzea den; beharbada, urrats seguruagoak ematea komeni da”.*

ALKATE-UDALBURUAK eskatu du aktan jasota gera dadila EAJ-PNV ZUIA udal-taldeari eskatzen diola adierazteko zer urrats eman beharko liratekeen gobernu-taldeak proposatutakoak ez badira.

ANDRES LAFUENTE OTXOA zinegotziak, ZBG-ZNU udal-taldekoak, bere egin du Idazkaritzak 2023ko uztailaren 13an egindako proposamen-txostena.

Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

Ondorengo aurrekariak IKUSIRIK, zuzendu egin da interesdunaren eskaera-dokumentuaren data (proposamen-txostenaren data: 2023/12/23), benetakoa 2022/12/23koa izanik:

Agiria	Data/Zki.
Interesdunaren eskaera	2022/12/23
Idazkaritzaren txostena	2023/03/10
Zerbitzu juridikoen txostena	2023/03/10
Informazio Batzordearen irizpena	2023/03/15
Osoko Bilkuraren erabakia	2023/03/16
Interesdunari entzunaldia emateko epatze-idazkia	2023/03/23
Jendaurrean jartzeko iragarkia	2023/03/31
Aurkeztutako alegazioen idazkaritza-ziurtagiria	2023/05/08
Alegazioei buruzko txostena	2023/05/08
Idazkaritzaren ebazpen-proposamenaren txostena	2023/07/13

KONTUAN HARTUTA Idazkaritzak 2023ko uztailaren 13an egindako ebazpen-proposamenaren txostena.

Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 28ko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordeak proposatuta,



AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkura ados azaldu da gehiengo osoz, hau da bertaratutako kideek (11 zinegotzitatik 10) honela bozkatu dute: aldeko botoa EH BILDUK (5) eta ZBG-ZNUK (1) eman dute eta EAJ-PNV (4) abstenitu egin da. Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** – 2023ko uztailaren 13ko Idazkaritzaren proposamen-txostena bere egitea.

**BIGARRENA.** – Aurkeztutako alegazioa ezestea, 2023ko maiatzaren 8ko alegazioei buruzko txosten teknikoan oinarrituta, eta interesdunari ezesprenaren berri ematea, dagozkion errekursoekin batera.

**HIRUGARRENA.** – Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena eskatzea.

**LAUGARRENA** - Prozedura ebazteko legezko gehieneko epea etetea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzen denetik irizpena jasotzen den arte.

**BOSGARRENA.** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

## **2.- ZUIAKO UDALAK MURGIAKO 7. EGIKARITZE UNITATEAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN (HAPB) HASIERAKO ONARPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA ONARTZEA.**

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta eztabaidagai den alegazioaren alderdi garrantzitsuen, aztergai den espedientearen aurrekarien eta Murgia 7. egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) hasierako onespina jendaurrean jartzeko aldi



Zuiako Udalak aurkeztutako alegazioa onartzeko proposamenaren berri eman du.

Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU ZUIA (5), EAJ-PNV ZUIA (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** - Zuiako Udalak Murgiako 7. egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) hasierako onespeneren aurka aurkeztutako alegazioa baiestea.

**BIGARRENA.** - Erabaki hau erreferentziazko administrazio-espeditentean jasotzea.

**HIRUGARRENA.** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordeztari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzen.

### **3.- MURGIAKO UDALERRIKO 7. EGIKARITZE UNITATEAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN (HAPB) BEHIN-BEHINEAN ONARTZEA (ALDEZ AURREKO HASIERAKO ONARPENAREN AURKAKO ALEGAZIOAREN ONARPENAREN BALDINTZAPEAN).**

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta Murgiako UE7ko HAPB behin-behinean onartzea proposatu du, hasierako onarpenari egindako alegazioa barne hartuta.

Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

IKUSIRIK behin-behineko onarpena Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokiola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95.3 artikulua arabera, 97.1 artikuluaekin lotuta, eta Toki



Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua araberara, Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 28ko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordearen proposamenez,

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU ZUIA (5), EAJ-PNV ZUIA (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** - Murgiako 7. Egikaritze Unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) behin-behinean onartzea, Zuiako Udalak aurkeztutako alegazioa onartu ondoren egindako aldaketak barne hartuta.

**BIGARRENA.** - Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari helaraztea, behin betiko onar dezan.

**HIRUGARRENA.** - Behin betiko onartutako Plan Berezia Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistrora bidaltzea.

**LAUGARRENA.** - Plana onartu eta hamabost egun balioduneko epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagokion lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ondorengo dokumentazio hau argitaratzea:

a) Plana onartzen duen ebazpena eta organo substantiboak plan horren eduki osoa jendearen eskura jarriko duen helbide elektronikoaren aipamena.

b) Ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu den Estatuko Aldizkari Ofizialaren edo dagokion aldizkari ofizialaren aipamena.



Era berean, hirigintza-arauak eta lizentziak eteteko eta kentzeko erabakiak argitaratzea, dagokion hirigintza-plana hirigintza-plangintzaren administrazio-erregistroan gordailatu dela adierazita.

**BOSGARRENA** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

#### 4.- 3/2023 KREDITU GEHIGARRIAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA.

ALKATEAK hitza hartu, eta kreditua gaitzeko espedientea bultzatzeko arrazioen berri eman du: Jugatxi Basoaren Argia ekitaldia eta udal-ibilgailua erosteko proposamena.

\* Gizarte- eta kultura-jarduerak (Jugatxi Basoaren Argia ekitaldia): 334.226.060 partida 27.505,35 euroz osatzea.

\* Udal-ibilgailua erostea: 920.623.010 partida 18.000,00 euroz osatzea.

Aldaketa gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuko da.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusirik,

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, **Osoko Bilkura** bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira **aho batez**, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU ZUIA (5), EAJ-PNV ZUIA (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.** - 45.505,23 euroko 3/2023 kreditu gehigarriaren espedientea onartzea, ondoren zehazten den errekurtsioa aurkeztuta.

**BIGARRENA.** - Espediente hori jendaurrean jartzea, erreklamazioak egin ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.



**HIRUGARRENA.** - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea, eta egonez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

**LAUGARRENA.** - Behin betiko erabakia arauzko moduan eta epean argitaratzea.

**BOSGARREN.** - Aldi berean, espedientearen kopia bat Arabako Foru Aldundiari bidaltzea.

**SEIGARRENA.** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

GASTUEN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
334.226.060	Gizarte- eta kultura-jarduerak (Jugatxi Basoaren Argia ekitaldia)	27.505,35
920.623.010	Udal-ibilgailua erostea	18.000,00

**GASTUEN ALDAKETA GUZTIRA ..... 45.505,35 €**

Aurreko zenbatekoa ondoren zerrendatzen den baliabideak finantzatzen du, eta, beraz, espedientea orekatuta eta defizitik gabe geratzen da:

SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
34101	Jugatxi Basoaren Argia ekitaldirako sarrerak	3.509,52
87001	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	41.995,83

**SARREREN ALDAKETA GUZTIRA ..... 45.505,35 €".**

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:52an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.



AYUNTAMIENTO DE ZUIA

MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA

MURGIA (ARABA)

Idazkaritza,